

EGUNKARIA



GURUTZETA SAGARDOTEGIAK Real Sociedad

Sagardo Naturala aurkeztu zuen:

GURUTZETA SAGARDOTEGI Ergobiakoak —Astigarraga— aurreko asteazkenean, otsailak 14, Sagardotegietako Menu Tipikoaren (Bakailao Tortila, Bakailao Frijitua, Txuleta, Gazta, Irasagar-gozokia eta Intxaurreak) dastaketa-bazkaria eskaini zien Real Societadeko jokaiari, tekniko eta zuzendaritzakoei, Real Sociedad Sagardo Naturala delakoaren aurkezpen ofiziala zela-eta.

Guztiek aukera izan zuten Sagardo berria probatu eta dastatzeko: 1995eko uztakoa, naturala, orekatua, hori kolore distiratsukoa, gardena eta sagarraren usain gozo atseginekoa.